



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK LEHEN HEZKUNTZAN

Egilea: Julen Ruiz Ulacia

Zuzendaria: Onintza Odriozola Irizar

Leioan, 2014ko ekainaren 14an

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.....	5
2.1. Sexu-genero sistema.....	6
2.2. Genero eragileak.....	7
2.2.1. Familia.....	8
2.2.2. Komunikabideak.....	9
2.2.3. Eskola.....	9
2.3. Sexismoa eskolan.....	10
2.4. Gizarteak transmititutako genero rolak eta estereotipoak.....	11
2.5. Eskola hezkidetzaileraren hobekuntzara bidean.....	13
3. Metodologia	14
4. Lanaren garapena	16
5. Emaidzak	18
6. Ondorioak.....	23
7. Erreferentzia bibliografikoak	28
 ERANSKINAK.....	 29
1. eranskina. Galdetegi irekiak.....	29
2. eranskina. Galdetegiak bideratzeko gidoia.....	38
3. eranskina. Ikasleen beraien buruarekiko duten irudia.....	41
4. eranskina. Lanbideen sailkapena.....	42

GENERO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK

LEHEN HEZKUNTZAN

Ikastalde baten aurreiritzien diagnostikoa

Julen Ruiz Ulacia

UPV/EHU

Lan honekin bilatu nahi izan dugun helburu nagusia Lehen Hezkuntzako umeez gizarteak transmititzen dituen genero rol eta estereotipoak zenbateraino barneratuta dituzten aztertzea izan da. Horretarako, hainbat adituren hitzak kontuan hartuz, gizartean genero rol eta estereotipoak transmititzen dituzten esparru ezberdinak behatu eta errealtatearen diagnostiko txiki bat egin dugu Lehen Hezkuntzako ikasgela batean ikerketa parte-hartzailea metodotzat hartuta. Ikasgelako esku-hartzean lorturako emaitzetan oinarrituta eta hasieran planteatutako galderei erantzuna emanez ondorioak atera ditugu; lan hau, aurrera begira, oinarri gisa, lagungarria izango delakoan hezkuntza hezkidetzaila eta parekidetasuna lortzera bidean.

generoa, rolak, estereotipoak, sexismoa, hezkidetzak

El principal objetivo que hemos buscado mediante este trabajo ha sido estudiar hasta qué punto tienen interiorizados los niños de Educación Primaria los roles y estereotipos de género que nuestra sociedad transmite. Para ello, teniendo en cuenta las ideas de varios autores, hemos examinado diferentes ámbitos de la sociedad donde se transmiten roles y estereotipos de género y realizado un pequeño diagnóstico en un aula de Educación Primaria tomando la investigación participativa como método. Basándonos en los resultados obtenidos de la intervención y respondiendo a las preguntas planteadas al principio hemos sacado conclusiones; pensando en que éste trabajo como base, pueda ser de gran ayuda en el camino hacia la coeducación y la igualdad.

género, roles, estereotipos, sexismo, coeducación

The main objective searched by this work is to study till which point the children in Primary Education have embraced the gender roles and stereotypes that our society transmits. In order to that and taking into account ideas from various authors, we have studied different ranges of the society where gender roles and stereotypes are transmitted and we have also carried out a diagnosis in a Primary Education classroom, using the participative investigation as method. Basing ourselves in the results obtained by the intervention and answering the questions that were set out in the beginning we have taken conclusions; thinking that this work can be helpful in the way to coeducation and equality.

gender, roles, stereotypes, sexism, coeducation

1. Sarrera

Historian zehar desberdintasun sozial ugari gertatu dira, eta egun ere halaxe gertatzen da, horien artean, genero-ezberdintasuna delarik handienetako bat. Mendez mende gizonezkoak hartzen joan diren eskubide asko ukatu zaizkie emakumezkoiei, eta gizartean menpeko plano batean geratu dira horrela. Egoera aldatzen joan bada ere, arrakala ugari dago oraindik askok parekide gisa definitzen duten gizarte honetan.

Gaur egun, berdintasunaren alde asko dago egiteko oraindik. Pixkanaka-pixkanaka bada ere, aurrerapausoak ematen ari gara, baina puzzle honetako pieza askok solte jarraitzen dute. Non ote dago arazoa? Zerk eragozten digu urte askoan zehar borrokatzen aritu garen berdintasun hori lortzea? Bada, gizarteak berak; gizarteak sortzen eta transmititzen dituen genero rol eta estereotipoek.

Inguruko pertsonak, komunikabideek eta neurri handi batean eskolak, bizi garen errealitatearen eraikuntza estereotipatu bat erakusten eta irakasten digute, eta umeei, ikasleei, behin eta berriz transmititzen zaie. Horrek, askatasunez jarduteko eta aukeratzeko bideak eragozten dizkie, eta nola ez, berdintasunean oinarritutako hezkuntza oztopatzen die.

Lan honekin honako hau aztertu nahi dugu: helburu eta ardatz gisa hezkidetzaz izanda, ea Lehen Hezkuntzako ikasleek gizarteak transmititzen dizkigun genero rol eta estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta. Horretarako, diagnostiko mailako esku-hartze bat egin dugu Ondarroako Zaldupe Eskola publikoko ikasle talde batean, beraien aurreiritziei buruzko informazioa jaso, emaitzak landu eta ondorio orokor batzuk ateratzeko asmoarekin. Horrela, gure ekarpen apala mahai gainean jarrita, aurrerantzean ikergaia gehiago sakontzeko bideak ireki nahi ditugu.

Puzzle hau osatzen joateko, esparru teorikoa osatzen hasiko gara: sexu-genero sisteman, gizarteko genero eragileetan, genero rol eta estereotipoetan eta hezkuntzan zehar ibilbide bat egingo dugu, gerora baliagarri izango zaizkigun argibideak biltzeko. Horren ostean, erabiliko dugun metodologia aurkeztuko dugu; hau, datu kualitatiboetan oinarrituko da eta talde froga eta elkarrizketa irekien bitartez eramango da aurrera. Gero, lanaren garapena azalduko dugu eta ikerketatik ateratako emaitzen berri emango dugu, azkenik, ateratako ondorioak aurkeztu eta hausnarketarako bidea emateko. Erreferentzia bibliografikoekin eta aurreko guztia hobeto ulertzen lagunduko diguten eranskinekin amaituko dugu lana.

2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Berdintasunak izugarritzko garrantzia du hezkuntzan, izan ere, egungo gizartean transmititzen diren jokabide sexistak eskolan ere aurkitzen ditugu, eskola bera gizartearen isla den heinean. Jokabideok hain daude gure kulturen sartuta, askotan konturatu ere egin gabe arau sozial bihurtu diren genero rol eta estereotipoak jasotzen eta erreproduzitzen ditugula.

Gauzak horrela, umeak gizarte honen partaide diren heinean, genero rol eta estereotipoak zenbateraino barneratuta dituzten ikustea ezinbestekoa iruditzen zaigu; izan ere, gaurko ikasleak izango dira etorkizunean gizartea aurrera eraman beharko dutenak. Eta eskola berdintasun ezaren erantzule bakarra ez den arren, parekidetasunaren alde asko egin dezake harremanak lantzeko, jarrerak eta balioak transmititzeko, eta gaitasunak garatzeko funtzioa duen instituzio eraginkor gisa.

Baina, nondik dator hau guztia? Zergatik desberdintasunean oinarritutako gizarte hau? Antzina, emakumea rol goxoa hartzeko hezten zen, atsegina, besteen nahietara egokitzen dena, kooperatiboa, gainontzekoen beharrekiko sentikorra eta abar izateko. Horrela, emazte eta ama ona izaten prestatuko zutela uste zen, familiak ongi funtzionatzeko eta haurrak arazorik gabe hezteko. Gizonezkoa, ordea, rol instrumentala hartzeko hezten zen, menderatzailea, asertiboa, independentea eta lehiakorra izateko. Hala, gizonak, senarraren eta aita tradizionalaren papera eginez, familiaren mantenua eskuratzeko eta familia babesteko zereginak burutuko zituen (Kipp eta Shaffer, 2007).

Gizarteak, eta hezkuntzak berak ere, ildo horretatik egin dute aurrera denbora luzean. Zorionez, urteetan zehar egindako borrokari esker berdintasunaren alde asko egin da, bai, baina egungo egoerara iristeko bidea ez da erraza izan. Hasieran, emakumeek ez zuten hezkuntza eskubiderik eta beraien kabuz landu behar izaten zuten garapen intelektuala. Gero emakumearen eskolatzea etorri zen; generoaren arabera hezkuntza jasotzen hasi ziren bakoitza bere aldetik, mutil eta nesken beharrak desberdinak zirela uste baitzen. Ondorengoek egungo egoerara ekarri gaituzte, mugimendu pedagogiko berriekin eskola mistoak sortu zirelarik (Bilgune Feminista, 2011).

Espainiar Estatuan neska-mutilen eskolak mende Erdiko esperientzia izan duen arren, gaur egun oraindik lan handia du egiteko hezkuntza-komunitateak. Oraindik ez dugu lortu eskola hezkidetzalea, eta horretarako bidea eraikitzeko garrantzitsua da gizarteko sexismoak eskolan duen eragina aztertzea, ikasleek jasotzen dituzten mezuak

identifikatuz, landuz eta konponbidea edo hobekuntzak planteatuz; izan ere, ikasleek gizarteak transmititzen dizkien genero rol eta estereotipoak erreproduzitzeko joera dute (Simón, 2010).

Horrela, beraz, ikasleek, egungo genero rolak eta estereotipoak erreproduzitzen dituztela hipotesizat hartuz, gaia testuinguruan kokatuko dugu. Eta hau guztia ulertze aldera, garrantzitsua da sexu-genero sistema zertan datzan azaltzea. Halaber, genero eragileen eta egungo gizarte honen oinarrian dauden genero rol eta estereotipoetan zehar ibilbide txiki bat egiteak berebiziko garrantzia du, eskolako errealitatea ere aztertuz, guztion artean eraiki behar dugun eskola hezkidetzaillearen oinarriak jartzeko.

2.1. Sexu-genero sistema

Ezin dugu ukatu, ikuspuntu biologikotik, gizonen eta emakumeen artean desberdintasunak daudenik sexu-organoak eta bakoitzak giza ugalketan duen funtzioa ikusita. Desberdintasun biologikoa izendatzeko “sexu” terminoa erabiltzen dugu, baina ez dago frogatuta bere baitan ahalmen, trebetasun edo jarrera ezberdinak dakartzanik; hauen sortzaile edo eragilea generoa da (Subirats, 1994).

Baina, zer ote da generoa? Generoa eraikuntza sozial bat da. Desberdintasun biologikotik abiatzen da, eta ondoren, sexu bakoitzarentzat espektatiba ezberdinak ezartzen ditu. Horrenbestez, gizarteak genero bakoitzetik rol sozial konkretu bat espero du (García, 2009). Subirats (1994), halaber, generoa sexu bakoitzarentzako desberdintatuko arau multzo gisa definitzen du. Gizarte bakoitzak bere beharren arabera sortzen du eta gizakioi jaiotzetik beretik inposatzen zaigu jokabide, desio eta modu guztietako akzioak burutzeko agindutako jarraibide gisa.

Bizitzako lehenengo urteetatik, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko kategorizazioa gertatzen da bai sexuaren eta bai generoaren esleipenean, jaio aurretikoa ere izan daitekeena (Santos, 2000). Haur bati sexua jaiotzetik beretik edo aurretik (ekografien bidez) egozten zaio, kanpo genitaletan oinarrituta. Generoa ere, gurasoek haurra jaio aurretik sexuei buruz dituzten ideia desberdinetan oinarritzen da: nahiago dituzte mutilak edo neskak, umea hezteko moduaren espektatibak sortzen dituzte generoaren baitan etab. (García, 2009). Honekin batera, arropa edo jostailu jakinak aukeratzean, logelaren bat dekoratzean eta abarretan ere generoa ezartzen ari gara nahi eta nahi ez.

Gizarteak genero bakoitzari transmititzen dizkion jokabide eta ezaugarriak aldaezin eta tinko gisa hartzen dituzte mutilek zein neskek, beraien sexuaren berezko ezaugarriak balira bezala. Gutxi gorabehera 7 urte betetzen dituzten arte, identitate sexuala galtzeko beldurra dela eta, genero balioak mantentzen dituzte (Garcia, 2009). Santrock (2007) ere bat dator ideia honekin. Autore honen hitzetan, 3-4 urterekin genero eskema sendoak dituzten haurrak daude: zeregin ezberdinetan gizonen eta emakumeen abilezia propioak bereizten dituzte eta nork bere sexuari lotutako abileziei garrantzia handiagoa ematen die bestearnei baino. Gainera, Santrock-ekin batera, Katherine Kipp eta David Shaffer-ek (2007) ere, neskek eta mutilek sexuen arteko desberdintasun eta banaketa argia egiten dutela adierazten dute, horrela, nork bere sexuaren ezaugarri positiboak eta kontrako sexuaren ezaugarri negatiboak ikasten ditu.

Hau horrela, esan bezala, 7-8 urtera arte gutxi gorabehera, genero estereotipoak ez dira malgutzen (Santrock, 2007; Kipp eta Shaffer, 2007). Adin horretan, estereotipoak konbentzioetan oinarritzen direla eta moldagarriak direla ulertzen hasten dira. Baina, aurrerantzean, batez ere nerabegarotik aurrera, identitate pertsonal propioa babesteko, gizarteko genero estereotipoak jarraitzeko joera hartzen dute berriro (García, 2009).

Esanak esan, beraz, ia konturatu ere egin gabe, gizarteak jarrera zehatz batzuk esleitzen ditu barneratzen eta onartzen joaten garenak; eta sexu bakoitzeko ezaugarri propio gisa hain normaltzat hartzen dira, genetikoki determinatuta datozela uste dugula. Horrela osatzen dira genero rolak (Santos, 2000). Genero rolak kultura edo talde sozial jakin batean dauden pertsoneri edo taldeei egokitzen zaizkien zeregin eta eginkizun multzo gisa defini ditzakegu.

2.2. Genero eragileak

“Bi sexu eta bi genero onartzen eta bereizten dituen sisteman bizi gara. Hauen artean menpeko harremanak ematen dira, hala nola, arra emearekiko eta genero maskulinoa femeninoarekiko gailenduz” (Bilgune Feminista, 2011:5). Beraz, gizarte sexista batean bizi gara; hori da behintzat Mari Jose Urruzolak (2002) ondorioztatzen duena. Bere hitzetan, emakumeen gainetik dagoen gizonen kolektiboaren hierarkizazioan oinarritutako antolaketa soziala, ondo bereizitako eta mugatutako bi estereotipo edo genero ezartzen joan da, bata emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat. Horrek eragin du Urruzolaren iritziz neskek eta mutilek sozializazio prozesu desberdina

bizitzea, eta ondorio nagusia gizonezkoen boterea eta emakumeen gutxiespena dira, berez “naturalki” egokitu zaigun zerbaitek balitz bezala ulertzen dena.

Horrela, gizarte bakoitzean izaten dugun sozializazio prozesuaren arabera, genero maskulinoko edo femeninoko kide izango gara, eta kultura bat garatuko dugu (Subirats, 1994; Santos, 2000; García, 2009). Alabaina, Margaret Meadek honakoa dio: “batzuetan nolakotasun bat sexu bati egotzi zaio, bestetan, aldiz, besteari” (Subirats-ek aipatua, 1994:58). Bada, gizonei eta emakumei egotzitako gaitasun eta ahalmenak gizarte batetik bestera aldatu egiten badira, garai batetik bestera, horrek suposatzen du ez direla biologikoki eratuak, baizik eta zehaztaper hori soziala dela (Subirats, 1994). Hori guztia irudiek, eredu sozialek, literaturak, komunikabideek, familiak eta instituzio askok, pribatu zein publiko, erakusten dute, baita hezkuntza-instituzioek ere (Simón, 2010).

2.2.1. Familia

Etxearen esparruan hasten dira finkatzen nortasunaren ezaugarriak definituko dituzten portaerazko jarraibideak (Salas, 1997), izan ere, gurasoak, beren seme-alaben behar material eta afektiboez gain, hezkuntzaz, ohituren eraketaz eta jokabide arauen eskuratzeaz arduratzen dira. Horien artean, familian, genero balioak barneratzen dira (Santos, 2000).

Haurrari sexu bat egokitzen zaion momentutik, gurasoak, eta orokorrean familia osoa, haurra modu ezberdinean ikusten hasten dira. Horrela, neska bada, “maitagarria eta xaloa” dela esaten da, mutila bada, aldiz, “gogorra eta bihurria”. Modu honetan, neska batek txikitan sukaldetxoekin, panpinekin etab. jolastu badu eta horregatik saritua izan bada, etorkizunean neskatoak nahiago izango ditu; eta berdina gertatzen zaie mutilei pistola, kamioi, gerrako jostailu eta abarrekin. Tratu ezberdintasun horiek eta gurasoek umearen sexuaren arabera dituzten itxaropenek, umeek beren buruarekiko duten irudian eragina dute, bai nortasunean, bai beraien etorkizun pertsonal zein profesionalean (Kipp eta Shaffer, 2007).

Miguel Angel Santosek (2000) aditzera ematen duen moduan, egun, nahiz eta emakumearen rol erreproduktiboak aldatzen ari diren, familia da emakumearen tokia, eremu “pribatuan/domestikoa”, eta gizonezkoarena, aldiz “publikoa”. Horrela, beraz, gizonezkoak esparru publikoko aktibitatez arduratzen dira eta apenas gauzatzen dute familiaren eta etxearen zaintzarekin lotutako jarduerarik. Era berean, emakumezkoek ez

zaie aintzat hartzen, esparru publikoan lortzea kostatu zaien eta kostatzen ari zaien mugarriak lortzeko eginiko esfortzua (Santos, 2000).

2.2.2. Komunikabideak

Komunikabideak gure egunerokorako behar-beharrezko bihurtu diren gizarte batean bizi gara, informazioa jasotzeko, entretenitzeko eta beste era batera eskuraezinak izango liratekeen aspektuak irakasteko (Loscertales eta Núñez, 2008). Era horretan, genero rolak, komunikabideek transmititzen dituzten edukien bidez ere transmititzen dira.

Maria Elena Simonek (2010) aditzera ematen duen moduan, produkzio kulturalaren mundua bizio patriarkalez blai dago, eta generoen arteko berdintasunaren, justiziaren eta ekitatearen alde pausuren bat ematen den bakoitzean, komunikabideek, aurrerapauso horiek indargabetzen dituzte. Horrela, Santosek (2000), Rubioren (1991)¹ ideiak oinarrian hartuz, komunikabideek, batez ere telebistak, irudi pobretuak, erredukzionistak eta estereotipoak transmititzen dituztela baieztatzen du, eta horrek pertsonen nortasunaren eta dimentsio sozialaren pertzepzioa zailtzen du.

Egia esan, komunikabideak arriskutsuak dira egoki erabiltzen ez badira, haurrek hauetatik gauza asko barneratzen baitituzte. Balio negatiboak transmititzen dituzte, eta nabarmenak dira gizon edo emakumeekiko erakusten dituzten ikuspuntu estereotipatuak. Telebistan, esaterako, sexu maskulinoak erabaki garrantzitsuak hartzen dituen bitartean, sexu femeninoaren irudia pasibotasunaren eta gizonarekiko dependentziaren irudi arketipikoa izan ohi da (Loscertales eta Núñez, 2008).

2.2.3. Eskola

“Historian zehar garatu diren hezkuntza-ereduak sistema patriarkalaren arabera finkatutako genero maskulino eta femeninoaren hierarkizazioan oinarritu izan dira” (Salas, 1997:28). Hala ere, azpisistema patriarkal guztien artean eskola da gutxien diskriminatzen duena. Baina eskola ez da neutroa, gizarteak eskatzen dituen balio batzuk sustatzen baitira bertan (Santos, 2000); izan ere, eskolan gizarte-eredu nagusia islatzen da, hau da, maskulinitate eredu hegemonikoa (Ugarte, 2008).

¹ Rubio, Esther (1991). “Género/sexo y currículo: la educación científica de las niñas”. *Infancia y sociedad: Revista de Estudios*, (10), 133-142.

Etorkizuneko irakasle bezala, garrantzitsua da eskolako eremu ezberdinetan presente dagoen kutsu sexista aztertu, behar duen garrantzia eman eta puntu nagusi gisa hartzea. Beraz, gure ikergaia duen pisua ikusita, sakon dezagun eskolaren eremuan.

2.3. Sexismoa eskolan

Gaur egun hezkuntza bateratua da; halaber, ikastetxeak mistoak izateak ez du esan nahi parekidetasuna dagoenik (Bilgune Feminista, 2011). Sexuen arteko berdintasuna lortuta dagoela sinetsarazi digu sistema patriarkalak, baina hezkuntzako jarduera guztietan identifika ditzakegu sexu-bereizkeriak: curriculumean, espazioen banaketan, hizkuntzaren erabileran, material didaktikoetan (testu liburuak, jolasak, ipuinak), harremanetan eta abarretan (Santos, 2000; Ugarte, 2008). Eta estereotipo horietatik at dagoen heziketa lantzea proposatzen denean, kasurik gehienetan femeninoa maskulinoan integratzen da eta kito (Urruzola, 2002).

Eskolako jolaslekuan sexuen arteko bereizketa nabarmena atzeman daiteke. Simonen (2010) hitzetan, neskak espazio periferikoak hartu eta hizketan aritzen dira beren intimitatearekin eta besteenarekin konektatzeko. Halaber, neskek hartzen dituzten espazio txiki horiek askotan ez dute identitaterik izaten, eta muga zehatz gabeko lekuetan egoten dira: bazterretan, eskaileretan (Azpiroz, 2005). Mutilek, aldiz, espazio zentralak hartu eta joko maskulinoak praktikatzan dituzte, norgehiagoka, zatarkeria, biolentzia eta krudeltasunez josirik egon ohi direnak (Simón, 2010).

Gela barruan irakasle eta ikasleen arteko harremanak berebiziko garrantzia dauka, eremu horretan irakaslea baita ikaslearen eredu, erreferentea; baina badirudi, sexu desberdinekiko harreman horiek ez direla maila orekatuan gertatzen. Frogatuta dago irakasleek, nahi gabe, mutilei neskei baino arreta gehiago eskaintzen dietela. Hala, neska edo mutila izan, gugandik espero dena desberdina da: neskei arduratsuak izatea eskatzen zaie eta neurrigabekeriarik ez zaie inolaz ere onartzen, eta gainera, neskengan jartzen den kontrola handiagoa da beti mutilekin konparatuz (Azpiroz, 2005).

Eta nola ez, ezin dugu ahaztu hizkuntzak sexismoaren transmisioan duen garrantzia (Abranchez eta Carvalho, 1999). Kontuan izan behar dugu beste edozein eraikuntza praktiko eta sozial bezala, hizkuntza ere historiak eta botere-egiturek taxutu dutela (Santos, 2000). Horrela, normalizat harturik dagoen hizkuntza horrek emakumeak mesprezatu, gutxietsi eta ikusezintzat hartzen ditu (Simón, 2010).

Material didaktikoen erabilera dugu sexismoaren beste adierazleetakoa bat, izan ere, irudien eta edukien aukeraketaren bitartez genero estereotipoak transmititzen dira. Hauetan, mutilak indartsuago, azkarrago, independenteago eta kuriosoago agertzen dira; neskak, aldiz, menpekoagoak, maitekorragoak, otzanagoak eta laguntzaileagoak dira. Gainera gauzatzen dituzten aktibitateak, jokoak, erlazioak, janzteko eta izateko moduak ezberdinak dira sexu bakoitzarentzat (Santos, 2000).

Esanak esan, neskak eta mutilak patroiz jakinen arabera moldatzen ditugu eta horren eragin ezberdinak ditu bai beraiengan eta bai beraien ingurukoekiko harremanean. Alde batetik, sexu bakoitzari gaitasun eta jarrera jakin batzuk bakarrik transmititzean, pertsonaren hainbat eremu landu gabe geratzen dira. Bestalde, egotzitako ereduak aldentzen diren pertsonak, “arraroaren” etiketa sufritzen dute; horren adibide izan daiteke dantzan egitea gustatzen zaion mutilarena, esaterako (Azpiroz, 2005).

2.4. Gizarteak transmititutako genero rola eta estereotipoak

Genero rola emakumeen eta gizonen gizarte eginkizunei egiten diete erreferentzia. Gizonezkoen rola hornitzaileak, agente-, inizatiba- eta kontrol rola egozten zaizkie. Emakumeen rola, aldiz, rola adierazkorra: zaintza-, itxarote-, eta atxikimendu-rola, guztiek amatasun rolaekin zerikusia dutelarik (Simon, 2010).

Sexuaren arabera bereizkeria honek ez digu pertsona osoak eta autonomoak izaten uzten eta, mutil zein neska, geure buruarekiko segurtasun ezarekin hazten gara (Bilgune Feminista, 2011). Askotan, gainera, mutilentzat on eta desiragarritzat hartzen dena ez da emakumeentzat hartzen den berdina, eta honek, emakume askorengan autoestima baxua sorrarazten du (Simón, 2010). Horrela, emakumeak arrazoibidetik, kulturatik, eta abarretik aldentzen dira, eta era berean, gizonezkoek ere hainbat jarrera nola inposatzen zaizkien ikusten dute: “gizonezkoek ez dute negarrik egiten”, “gogorra izan behar zara”, “indartsua zara” eta beste hainbat esapiderekin (Santos, 2000). Urruzolak (2002) gaineratzen du gizonezkoek beraien sentimenduen eta gizatasunaren inhibizioa pairatzen dutela eta zakarkeriara, agresibitateara eta sentikortasunik ezera bideratzen dituela gizarteak.

Genero rola estereotipoen jaten ematen laguntzen diete. Beraz, aurreiritzietan eta usteetan oinarritzen diren orokortzeak dira estereotipoak, pertsonak nolakoak izan behar diren esaten dutenak (Santos, 2010). Estereotipoen hitz egitean izaeraz eta sentierez ari

gara, gizonezkoei genero identitate maskulinoaren arabera eta emakumezkoei femeninoaren arabera eskaintzen zaizkienak (Salas, 1997).

Begoña Salas García (1997:34) bereizketa ezin hobea egiten du gizarteak transmititzen dituen genero estereotipoen inguruan, hauek taula batean kategoriaka sailkatuz:

ESTEREOTIPOA	MASKULINOA	FEMENINOA
Gaitasunak:	Inteligentzia, indarra, independentzia...	Afektibitatea, sentiberatasuna, erantzukizuna...
Balioak:	Agresibitatea, anbizioa, jauzkortasuna, boterea...	Otzantasuna, ulerkortasuna, ahultasuna, samurtasuna...
Portaera-ereduak:	Estandar maskulinoa, estereotipoa indartzeko (mutilek ez dute negarrik egin behar, gizonezkoek ez baitute halakorik egiten...)	Estandar femeninoa, estereotipoa indartzeko (neskatoak ez dira zikindu behar, ez zaitez mari-mutila izan...)
Kolore bat:	Urdina	Arrosa
Espazio bat munduan:	Esparru publikoa	Esparru pribatua
Eredu sexual bat:	Heterosexuala (rol aktiboa)	Heterosexuala (rol pasiboa)
Sexu bat:	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Funtzio biologiko bat:		Amatasuna

1.taula: gizarteak transmititzen dituen genero estereotipoak (Salas, 1997)

Aurrekoei gehituz, Simonek (2011) emakumezkoei, maitasuna, dependentzia, etxerako eta estetikarako zaletasuna, beste neskekiko lehiakortasuna eta intuizioa egozten zaiela baieztatzen du. Era berean, gizonezkoen estereotipoei akzioa, lehia, kontrola eta nagusitasuna gehitzen dizkie.

Genero rol eta estereotipo guzti hauek aurreiritzien eta ohituren emaitza dira, eta pertsona asko hauetara egokitu izanak naturalak direla ematen du. Horregatik, oso jende gutxi ausartzen da hauek eraldatzera, beraz, horrela, bukatzen ez den soka baten aurrean gaude. Gainera, gizon edo emakume izate hutsagatik rol edo paper bat irudikatzen badugu, eta ez benetan gustatzen zaigulako eta ondo doakigulako, gure askatasuna, daukagun askatasun propio hori apurtzen dugu. Eta hausnartuz gero, honako ondorio honetara iritsiko gara: edozein gizakik, gizon zein emakume, ezaugarri eta gaitasun hauek ikas ditzake, guztiok eskura ditzakegu. Pertsona bakoitza singularra da eta gauza bat ikas dezake (edo ez) bere bizitzan zehar (Simón, 2010).

Hauek horrela, Simonek (2010) dioen bezala, berdintasuna printzipio on bat baldin bada, lortu beharreko helburu bihurtu beharko litzateke; horretarako berdintasuna bera ikasi eta modu guztietako bitartekoak jarri beharra dago. Hezkuntza sistema da zeregin honen arduradun nagusia, baina sistema familiarak eta mediatikoak ere lehen mailako funtzio didaktikoa duten eran, ardura hezkidetzailleak dituzte eskolarekin batera. Berdintasuna ez du norberak bere kabuz ikasten (Simón, 2010), guztion esku dago.

2.5. Eskola hezkidetzaillea hobekuntzara bidean

Estereotipoak alde batera utzi beharra dago. Pertsona berreskuratu behar dugu, bere identitatearen garapena sustatu eta honen hazkunde integralari bultzada eman. Horixe bera da hezkidetzara Bea Ugarteren (2008) esanetan. Bilgune Feministak bestalde, horrela definitzen du hezkidetzara: “Hezkidetzara, norberaren banakotasun eta berezitasunaren arabera, izaera desberdinak onartuz, genero-sexu sistematik at egiten den pertsonen hezkuntza da. Irizpide sexistek barne hartzen dituzten gizon eta emakumeei egotzitako rol, balore, portaerak e.a. transmititu gabe hezte da” (2011:10).

Santosek (2000) aditzera ematen duen moduan, eskola instituzioak bere jarraibide sexistak berrikusi behar ditu, osterantzean, gutxi egin ahal izango du hezkidetzaren mesederako. Ez badira eskolako egitura eta funtzionamendutik ezabatzen eta eskola-kulturatik desagertzen, eta ez badira hauen ugaltze mekanismoak berraztertzen, zaila izango da aldaketa sakon bateranzko bidea egitea.

Esanak esan, beraz, eskola hezkidetzaillea eraikitzeke ezinbestekoa da ikerketa sakon bat egitea. Lan honekin, eskola hezkidetzara bidean ekarpen txiki bat egin nahi dugu, horrela, diagnostiko bat eginez, gerora horretan sakondu edo hobetzeko estrategiak diseina daitezkeen bilatzen dugu. Horretarako, helburutzat Lehen Hezkuntzako ikasleek gizarteak transmititutako genero rola eta estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta hartuz, horretara iristeko bide gisa hainbat galdera eragile aztertu nahi ditugu:

- Genero rol konbentzionalen eta ez konbentzionalen aurrean zein erreakzio azaltzen dute eta norekin identifikatzen dira?
- Sexu bakoitzari edo/eta beraien buruari genero rol edo estereotipo jakin bat lotzen diote?
- Zein iritzi dute jostailuen eta generoaren artean egiten den loturaz?
- Lanbideak sexu jakinekin lotzen dituzte?

3. Metodologia

Alberto Ramirezek (2003) aditzera ematen duen moduan, metodo zientifikoaren bitartez fenomeno jakin bat behatzea, deskribatzea, azaltzea eta iragartzea bilatzean da. Horrela, pausoz pauso, planteatutako arazo edo egoera batetik, horren zergatia ulertzeko bideak eraikitzen dira. Lan honetan, metodo zientifikoaren egitura jarraituko dugu. Horretarako, lehenbizi arazoa edo egoera planteatu, eta ostean hipotesiak eta galderak formulatu ditugu; ondoren esku hartu eta emaitzak aztertuko ditugu, gero ondorioak atera, eta azkenik hausnartu eta hobekuntzarako bideak proposatu.

Ikerketa hau aurrera eramateko, Martinez Miguélez-ek (2006) bereizten dituen paradigma ezberdinak kontuan hartuz, guk aukeraturiko metodologia paradigma interpretatzailean kokatzen dugu, izan ere, gure gizartea eta fenomeno sozialen esanahia aztertu nahi dugu ikasleen jarrera, pentsamendu eta iritzien bitartez, ikasleek errealitatea nola interpretatzen duten ikusteko. Paradigma hau bizitza errealean oinarritzen da, datu kualitatiboetan, ikertzailearen eta ikertuaren arteko harremanen testuinguruan.

Ikerketa kualitatiboen baliotasuna eta fidagarritasuna zalantzan jarri da urte askotan ikerlariaren interpretazio mailagatik, baina ikerketa kualitatiboen esperientziak kontrakoa erakutsi digu. Horrela, Cortesek (1997) esaten duen moduan, ikerketa kualitatiboetan lan egiten duen ikertzaileak, errealitatea ikerketan parte hartzen duten subjektuek hautematen duten moduan ulertu nahi du; ez zaio “existitzen den” errealitatea ulertzea interesatzen, hautematen dena baizik. Horrela, parte-hartzaileengandik errealitatearen ikuspegi anitzak ikusteko aukera ematen du. Era berean, ikerketa kuantitatiboen fidagarritasuna bermatzeko kontrol estatistikoak erabiltzen diren moduan, ikerketa kualitatiboan gizakia bera da entrenamendu eta teknika ezberdinak erabiliz fidagarritasun hori ematen duena, errealitatearen eta ezagutzaren arteko bitartekari gisa (Cortes, 1997).

Gure helburu nagusia genero rolek eta estereotipoek Lehen Hezkuntzako umeengan zenbaterainoko eragina duten ikustea denez, ikerketa esku-hartzailea egitea erabaki dugu. Beraz, ikerketa enpirikoa egingo dugu eta, horrela, LHko 9-10 urteko ikasleek genero rolei eta estereotipoei buruz dituzten aurreiritziak jasoko ditugu, hauek aztertuta genero rol eta estereotipoen presentzia mailaren diagnostikoa egin ahal izateko. Eta horretarako, paradigma interpretatzaile horretaz baliatuz, ikerketa parte hartzaileaz

baliatuko gara. Lan egiteko hautatutako tresnak talde frogak eta elkarrizketa irekiak izan dira:

- Talde frogak: froga hauek zehatzak izango dira, eta ikasleen gaitasun kognitiboa eta emozionala neurtzeko bide izango dira, hau da, ea zein aurreiritzi eta zein erreakzio duten.
- Elkarrizketa irekiak: froga bakoitzaren ostean, elkarrizketarako bidea irekiko da. Taldean egingo dira, eta galdera itxiak (aurrez prestatuak) eta irekiak (unean sortuak) planteatuko dira. Horrela, ikerlariak emandako erantzunez gain, elkarrizketatuen jarrerak eta erreakzioak ere neurtuko ditu, hauek guztiak audio-grabatzailean grabatuta geratuko direlarik. Elkarrizketaren bidez, ideiak plazaratzeko, elkartrukatzeko eta eztabaidarako aukera emango da eta, era berean, hausnarketarako bidea eraikiko da.

Jardunean zehar, behaketa ere baliagarria izango da ikasleen jarrera eta erreakzioak ikusterako orduan, hala ere, ez da tresna nagusi gisa erabiliko.

Hauek horrela, aukeratu dugun metodologia eta tresnak ikertzen ari garen subjektuaren ulermena, testuingurua, berezitasuna eta konplexutasuna aztertzeko biderik aproposena dela uste dugu.

4. Lanaren garapena

Helburu orokorra, hipotesia eta galdera nagusiak finkatuta, eta metodologia interpretatzailea eta parte hartzaileaz baliatuz, helburu horiek lortzeko bideari ekingo diogu eta, asmo horrekin, Ondarroako Zaldupe Eskola Publikora hurbildu gara. Lan edo azterketa eremua 9-10 urteko umeak izan dira eta, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasgela batean zentratu gara. Bertan, 18 ikasle batzen dira: 11 mutil eta 7 neska.

Ikerketa txiki honetan, informazioa lortzeko teknika gisa talde froga eta elkarrizketa irekietan oinarritu gara eta, hauetan, ikasleek emandako erantzunez, solasaldiez, izandako erreakzioez eta behaketez baliatu gara. Prozesu honetako datuen tratamendua kualitatiboa izango da eta datuak interpretatu egingo dira orokorrean, hala ere, bigarren mailako datu kuantitatibo batzuk jasoko ditugu iritzi jakin bat duten ikasle kopurua ezagutzeko. Alabaina, teknika kualitatiboa lehenetsiko da ikertu nahi dugun fenomenoaren sakonera aztertzerantz bidean.

Hasteko, esku-hartzearen diseinuan zentratu gara. Lau kategoria sailkatu ditugu, eta hauetako bakoitzak galdera eragile bati erantzuten dio, talde froga gisa jarduera ezberdinen bitartez bideratu direnak, guztiekin galdetegi bat osatuz (ikus 1. eranskina). Laburki esanda, galdetegia ondorengoan datza:

- a) Rol eta estereotipo femeninoekin eta maskulinoekin identifikatzen: atal honetan, ikasleek bi ipuin entzungo dituzte. Lehenengoan, neska protagonistak (Amaiak) gizartearen estereotipatutako rol femeninoak ditu, eta mutilak (Aitorrek) rol maskulinoak. Bigarrenak, aldiz, kontrako kasua erakusten digu, mutilak (Kepa) rol femeninoak eta neskak (Irene) rol maskulinoak dituelarik.
- b) Gizarteak transmititzen dituen gaitasun, balio eta portaera-eredu estereotipatuaren irudia umeengan: bigarren atal honek bi jarduera barnebiltzen ditu:
 - Nolakoak gara neskak eta mutilak?: Hormako mural batean neska baten eta mutil baten giza irudiak egongo dira irudikatuta. Bakoitzak sexu bakoitzeko pertsonak nolakoak diren edo zein ezaugarri dituzten idatzi beharko du eta gero emaitzak hormako muralean ipiniko dituzte.
 - Nolakoa naiz ni?: Ikasle bakoitzari ezaugarri betetako orri bat banatuko zaio, eta bakoitzak bere buruarekin identifikatu beharko ditu.

- c) Jostailuen eta jolasen generoa: hirugarren atal honetan, ikasleei mutil baten eta bere panpinaren argazki bat erakutsiko zaie. Honekin batera, egoera bat planteatuko da, “Ikerrek 8 urte ditu, 3. maila dago, eta panpinekin jolastea gustatzen zaio, baina jendeak esaten dio gaizki egiten duela” esaten duena.
- d) Lanbideak, genero kontua?: laugarren eta azken atal honetan beste orri bat banatuko zaie ikasleei, oraingoan lanbide mota ezberdinekin. Ikasleek, kolore ezberdinak erabiliz, lanbide hauek sailkatu beharko dituzte, mutilenak, neskenak edo bienak diren zehaztuz.

Jarduera hauen osteko elkarrizketa bideratzeko, jarraibide gisa, gidoi bat prestatu dugu galdera ezberdinekin eta ikasleek eman ditzaketen erantzun posibleekin (ikus 2. eranskina).

Diseinuaren ostean, hurrengo pausua praktika izan da. Galdetegi ireki hauek aurrera eramateko, ikasle-taldea lau zatitan banatu dugu, bakoitzean mutil eta nesken kopuruak orekatuz. Horrela, ikasle-taldea klasean ikasgai jakin bat lantzen ari zen bitartean, taldeka gelatik ateratzen joan gara. Galdetegi-saio bakoitza 50-60 minutukoa izan da. Hona hemen, lan egiteko antolatutako sistema:

1. taldea	2. taldea	3. taldea	4. taldea
Andoni Kaiet Kerman Maria Manex	Amaia Arantxa Iñaki Markel Xuban	Dabid Maialen Mario Xabat	Itsaso Luken Inar Uma
Maiatzak 7, asteartea 11:30-12:30 4C ikasgela	Maiatzak 7, asteartea 14:45-15:45 1A ikasgela	Maiatzak 8, asteazkena 11:30-12:20 HIPI gela	Maiatzak 8, asteazkena 14:45-15:40 HIPI GELA

2. taula. Esku-hartzeen taldekatze, egun eta orduak

Ikerketan parte hartu duten elkarrizketatuen datuen isilpekotasuna mantentze aldera, asmatu-izenak jarri ditugu.

Ondoren, kategoria bakoitzean jasotako informazioa bi azpikategoriatan sistematizatu dugu: (1) ikasleek genero rola/estereotipoak barneratuta dituztela erakusten duten iritziak, eta (2) genero rola/estereotipoak parekideago agertzen diren edota erreproduzitzen ez diren iritziak eta erreakzioak. Horrela, atera diren emaitza ezberdinen tratamendua egin dugu.

5. Emaitzak

a) Rol eta estereotipo femeninoekin eta maskulinoekin identifikatzen:

- *Ikasleek genero rola/estereotipoak barneratuta dituztela erakusten duten iritziak*

Bigarren istorioak, rol femeninoak dituen mutilaren (Kepa) eta rol maskulinoak dituen neskaren (Irene) inguruan hitz egiten duenak, atentzioa deitu die ikasleei eta erreakzioak berehala iritsi dira. Kepak rol femeninoak dituela entzutean, ikasle gehienak, guztiak ez esateagatik, harrিতuta geratu dira; gainera, batzuek barre ere egin dute.

Denek hasieran protagonista neska zela pentsatzen zuten, eta Maialenek hitzez ere adierazi du: “mutilak normalean ez dira neskekin sokasaltoan edo eskumuturretaoak egiten aritzen, eta neskak ere ez futboleant”. Ikasleen iritziak, Kepak nesken gauzak egiten ditu eta Irenek mutilenak, eta hori arraroa egin zaie. “Kepa berez autoekin ibili behar da eta Irene sokasaltoan” zioen Kermanek. Horrez gain, Keparen lagunak neskak izatea “arraroa” egin zaio askori; eta pare bat ikaslek “marikita” eta “homosexual” etiketak jarri dizkiote, “mutilekin ibili beharrean neskekin ibiltzen dela” aipatuz.

Pertsonaiekin identifikatzerako orduan, mutilen kasuan, zortzitik sei Aitorrekin identifikatu dira futbolarekin duen loturagatik. Era berean, neska bakarra identifikatu da emakume batekin, Amaiarekin, hain zuzen, neskato maitagarriarekin.

- *Genero rola/estereotipoak parekideago agertzen diren edota erreproduzitzen ez diren iritziak eta erreakzioak*

Neska batek eskumuturretaoak neskek egiten dituztela esatean, Dabidek, berak eskumuturretaoak egiten dituela eta gustatzen zaiola aldarrikatu du.

Azpimarragarria da, nesken kasuan, gehienak Keparekin identifikatu direla. Honen arrazoa, Kepari bezala soka ibiltzea eta abestea gustatzen zaiela izan da.

Guztiei rola truketuta azaldu diren ipuina gehiago gustatu zaie, politagoa iruditu zaie.

Aipatzeko beste aspektu bat, “zer iruditu zaizue deigarriena?” galderaren aurrean, ikasle batzuek emandako lehenengo erantzuna da: esan dute ez dituztela aitak egiten dizkien errietak ulertzen. Maialenek, gainera, esan du: “Irenek zergatik utzi behar ditu bere autoak gustatzen bazaizkio?”.

- b) Gizarteak transmititzen dituen gaitasun, balio eta portaera-eredu estereotipatuen irudia umeengan:

Ikasle guztiek izaerari eta zaletasunei loturiko ezaugarriei egin diete erreferentzia, eta guztiek antzeko pentsamenduak badituzte ere, egon da beste motatako iritzirik.

- *Ikasleek genero rola/estereotipoak barneratuta dituztela erakusten duten iritzia*

SEXU BAKOITZAREKIKO DUTEN IRUDIA		
Guztiek emandako iritzia		
ESTEREOTIPOAK	MUTILAK	NESKAK
Izaerari loturik	Ausartak, indartsuak, abenturazaleak, ganberroak, zikinak, saskarrak eta bromazaleak	Alaiak, maitagarriak, atseginak, jatorrak, pinpirinak, garbiak, lotsatiak, beldurtiak
Zaletasunei loturik	Kirolak (saskibaloia, futbola, igeriketa etab.), autoak, kromoak, panpinak ez-gustuko	Abestu, dantzan egin, eskumuturrekoak egin, lagunekin ibili, marraztu, panpinekin eta sokasaltoan ibili
Beste batzuk	Ile motza	Modarekin edo apaintzearekin lotuta: ile luzea, atzazalak margotu, gonak eta belarritakoak jantzi
Nork bere sexuari gehien egotzitakoak		
Izaerari loturik	Lehiakorrak, azkarrak, indartsuak	Arduratsuak, maitekorrak
Zaletasunei loturik	Futbola	Dantzan egin, sokasaltoan ibili

3. taula. Umeek sexu bakoitzarekiko duten irudia

Horrez gain, mutil batzuek, harro, agintzaile edota berekoi gisa definitu dituzte neskak; eta egon dira mutilak desatsegin, agintzaile eta harrotzat hartu dituzten neskak ere. Horrela, kontrako sexuak kideei “gaizki ikusita” dauden edota konnotazio negatiboa duten ezaugarriak egotzi dizkiete.

- *Genero rola/estereotipoak parekideago agertzen diren edota erreproduzitzen ez diren iritzia eta erreakzioak*

Hasiera batean ikasle guztiek maitekorren, afektiboaren eta sentiberaren etiketak neskei egotzi badizkiete ere, gero mutilek ere ezaugarri horiek izan ditzaketela onartu

dute. Hala ere, mutilek, jarrera maitekorrak familiakoekin bakarrik dituztela esan dute. Dabidek, gainera, bera sentibera dela aitortu du, baina negarrari eutsi egiten diola.

Ikasleek indartsutzat mutilak hartu dituzte. Estereotipo femeninoetatik at, Iñaki eta Xubanek neskak indartsuak eta ausartak direla esan dute; neska bakar batek ere ez du horrelakorik aipatu beraien sexuari buruz, ordea. Maialenen hitzak izan daitezke horren arrazoa: “agian ez gara hain indartsuak sentitzen. Agian mutilek pentsatzen dute gu indartsuak garela, baina guk ez”. Eta indarrarekin lotzeaz gain, oraingoan bai mutilek bai neskek, nesken eta kirolen arteko lotura ere egin dute.

Orokorrean neskekiko edo mutilekiko duten iritziek estereotipoak jarraitu badituzte ere, beraien burua nola ikusten duten azaltzean, hauetatik desbideratzen direnaren sententzia eman digu (ikus emaitzak 3. eranskinean). Ikasle guztiak definitu dira abenturazale eta aktibo gisa, eta hauek, berez, estereotipo maskulinoak dira. Jarraian dagoen taulan ikusi daitezke rol eta estereotipoen apurketa eman diren kasu batzuk, mutilek zein neskek beraien burua pertsonalki ikusten duten moduan oinarrituta.

PERTSONALKI NOLA IKUSTEN DUTEN BEREN BURUA (rol/estereotipoen apurketa)		
ESTEREOTIPOAK	MUTILAK	NESKAK
Izaerari loturik	Pazienteak, besteei entzutea eta laguntzea gustuko, sentiberak	Anbizio handikoak, ez pinpirinak
Zaletasunei loturik	Kirolak (saskibaloia, futbola, igeriketa etab.), autoak, kromoak, panpinak ez-gustuko	Abestu, dantzan egin, eskumuturrekoak egin, lagunekin ibili, marraztu, panpinekin eta sokasaltoan ibili

4. taula. Umeek beren buruarekiko duten irudia

c) Jostailuen eta jolasen generoa

- *Ikasleek genero rolak/estereotipoak barneratuta dituztela erakusten duten iritzia*

Mutil bat panpina batekin jolasten ikusi dutenean, guztiengan lehenengo erreakzioa harridura izan da; bi mutilek, gainera, mespretxuzko aipamenak egin dituzte. Barreak ere ez dira falta izan; ikasle guztiek egin dute barre. Hala, mutil bat kotxetxoarekin ibiltzeak barregura ematen diela adierazi dute askok, mutilek, gehienbat.

Ikasleen iritziz, jendea berarekin sartzen da panpinekin neskak ibiltzen direlako. Askok, bai neskek eta bai mutilek, “nesken gauza” bezala kalifikatu dute panpinekin ibiltzearen ekintza; eta mutilek, mutilak futbolearen aritzen direla esan dute, ez panpinekin.

Ikerri jostailu berriren bat erosi beharko lioketen ala ez galdetu, eta askok, mutil zein neska, baietz erantzun dute. Lukenek, gainera, baloi bat erosi beharko lioketela esan du.

Argazkiko egoera ikasleen egunerokora hurbilduz, beraien inguruko mutil bat panpinarekin jolasten imajinatze hutsak barregura ematen diela adierazi dute barre algarara artean. Behin eta berriz azpimarratu dute arraroa egiten zaiela mutil bat panpinarekin eta kotxetxoarekin ikustea; eta Xabatek, normalean panpinekin ibiltzen neskak ikusten dituztela gehitu du.

- *Genero rola/estereotipoak parekideago agertzen diren edota erreproduzitzen ez diren iritziak eta erreakzioak*

Hasiera batean, Kermanek eta Lukenek, Iker panpinekin ez dela gehiago ibili behar esan dute. Alabaina, ikaskideen iritziak entzun ostean, ideia aldatu dute, baina etxean bakarrik ibili behar dela esanez. Horrela, Xubanek, bera batzuetan arrebarekin panpinekin ibiltzen dela aitortu du, baina etxean bakarrik [lotsatuta]. Beste guztiak barrez hasi dira, eta mutilak berak ere berari barregura ematen diola adierazi du.

Iñakik mutilak panpinekin ibiltzea normaltzat ikusi du, batez ere txikiak direnean. Markelek, gainera, bera panpinekin ibili izan dela aitortu du. Iritzi honekin bat eginez, Arantxak hasieratik adierazi du ez duela ulertzen jendeak zergatik esaten dion Ikerri panpinekin ez ibiltzeko, izan ere, mutil bati lasai-lasai gusta dakioke panpinekin ibiltzea edo/eta dantzan egitea. Honen aurrean, Umak esan du: “seguru pentsatzen dutela mutila denez ezin dela panpinekin ibili, pentsatzen baitute gaizki eginda dagoela. Baina nik uste dut mutilak ibil daitezkeela panpinekin, eta neskek ere egin ditzakete normalean mutilek egin ohi dituzten gauzak”.

Halaber, adinarekin loturiko beste hausnarketa bat ere egin dute. Honetan, panpinekin ibiltzea ume txikien kontua dela uste dutelako egin diote kritika Ikerri.

Ikasleek Iker panpinekin ibiltzeko nagusiegia dela uste badute ere, azkenerako, guztiek pentsatzen dute panpinekin arazorik gabe ibil daitezkeela gustatzen zaiona hori bada. Horrela, Ikerrek nahi duen jolasetan aritzeko eskubidea duela aldarrikatu dute, gaizki egiten dutenak ingurukoak direla azpimarratuz, Ikerri horrelako gauzak esaten.

Honekin, guztiek babestu dute jolas guztiak guztiontzat direla esaten duen ideia; pertsona oro nahi dituen jostailuekin ibil daitekeela.

d) Lanbideak: genero kontua?

Lanbide jakin batzuk mutilenak, neskenak edo bienak gisa sailkatzeko eskatzean, iritzi ezberdintasun ugari agertu dira kasu batzuetan (ikus emaitzak 4. eranskinean).

- *Ikasleek genero rolak/estereotipoak barneratuta dituztela erakusten duten iritziak*

Proporzioan, lanbide gehienak bi sexuenak direla adierazi dute, baina ez guztiak; alde nabarmenak egon dira kasu batzuetan. Mekaniko, astronauta eta arrantzale lanbideak gizonezkoekin lotu ditu gehiengoak. Era berean, haur zaintzaile lanbidea emakumezkoen egotzi diete. Batzuek, hau, emakumezkoek egiten duten lana dela adierazi dute, eta normalean gizonezkoak ez direla horretan aritzen. Maialenek, emakumeekin soilik lotu du bere iritzi inoiz ez duelako gizonik ikusi ume zaintzan kotxe karro batekin.

Lanbideak bi sexuekin lotu diren kasuetan, esan behar da bigarren aukera bezala gizonezkoa nabarmendu dela. Honen eredugarri da, gizonezkoen lanbideetan bakarra geratu dela hutsean, haur zaintzailearena; eta emakumezkoenetan bost izan dira, mekanikoa, astronauta, suhiltzailea, polizia eta arrantzalea, hain zuzen.

- *Genero rolak/estereotipoak parekideago agertzen diren edota erreproduzitzen ez diren iritziak eta erreakzioak*

Dabidek haur zaintzailearen lana mutil zein nesken lanbidea dela defendatu du, bere lehengusuak osaba-izebek, biek, zaintzen dituztela esanez. Azkenean, ia guztiak, bien lanbidea dela onartzera iritsi dira, baina batzuek, gehienetan neskek egiten duten lana dela defendatzen jarraitu dute.

Guztira, 18 ikasletik 3k (bi neska eta mutil bat) lanbide guztiak guztionak direla esan dute, bai mutilenak bai neskenak. Ariketa azaldu bezain laster, esaterako, Kaietek, lanbide guztiak denek direla adierazi du; Arantxak, era berean, ariketa irakurri bezain laster errotulagailu gorria hartu eta guztia gorritz margotu du.

Azkenik, aipatu beharra dago, Mariak emakumeen lan munduaren inguruan esandakoa: “lehen neskei gauza batzuk egiten ez zieten uzten, baina orain bai”.

6. Ondorioak

Badakigu, eguneroko bizitzan, teorian gauza asko esaten ditugula eta gero praktikan esandako hori aldatu edota deuseztatu egiten dugula. Azterketa honetan zehar ere, horrelako zerbait gertatu zaigu. Jardueretan zehar, ikasleek iritzi asko plazaratu dituzte, asko eta asko, gainera, arrazoituz. Alabaina, unean uneko bulkadak eta egoera ezberdinen aurreko erreakzioak ikasleen salatariak izan dira. Askotan, gainera, ikuspuntu jakin bat azaldu dute, gero, iritzi ezberdinak entzunez eta elkarrizketaren bitartez pixkanaka aldatzen joan dena. Hala ere, aurrerago, berriro ere, hasieran zaukaten iritziarekin jarraitzen zutela sumatu diegu behin baino gehiagotan.

Ondorioen aurkezpena egiteko, eskuratutako emaitzetan (iritzietan, erreakzioetan etab.) oinarrituko gara eta jarraibide gisa hasieran planteatutako galdera eragileak hartuko ditugu. Horrela, orokortzera bidean, azkenean, hasierako helburu orokor horretara joko dugu.

- **Genero rol konbentzionalen eta ez konbentzionalen aurrean zein erreakzio azaltzen dute eta norekin identifikatzen dira?**

Ipuin gehienek genero rola eta estereotipoak erreproduzitzen dituzte (Santos, 2000; Ugarte, 2008), eta ikasleek ipuinek igorritakoa barneratzen dute, bai transmititzen dituzten rol eta estereotipoak, bai istorioaren argumentua.

Pertsonaien ezaugarriak, jarrerak etab. jasotzerako orduan, orokorrean, normalagoa egiten zaie neska batengan rol maskulinoak ikustea mutil batek rol femeninoak izatea baino; zaila egiten zaie hori ulertzea. Hala eta guztiz ere, rol eta estereotipo ez konbentzionalen aurrean azaltzen duten tolerantzia maila nahiko handia da. Ikasleek beraiek hasieran “arraro” gisa kalifikatzen dituzten ezaugarriak edo jarduera, ondoren, ondo onartzen dituzte.

Bestalde, aurrerapauso handia suposatzen du sexu bateko pertsona bat beste sexuko kide batekin identifikatzea. Eta puntu positibo gisa, esan beharra dago, ikasleek onartzen dutela sexu bateko pertsona batek kontrako sexuaren ezaugarri gisa kategorizatuta dauden rola izatea, eta era berean, nork bere gustuak izan ditzakeela defendatzen dute.

- **Sexu bakoitzari edo/eta beraien buruari genero rol edo estereotipo jakin bat lotzen diote?**

Ikasleek gizarteak transmititutako rol eta estereotipoak jasotzen dituzte eta neurri handi batean erreproduzitu egiten dituzte; eta bai mutilek eta bai neskek, sexu-genero sistemak sexu bakoitzari egokitzen dizkion rol eta estereotipoak hartzen dituzte eredutzat (Simón, 2010).

Hala, norberak bere sexua goraiatu egiten du eta kontrakoa negatiboki kalifikatzen du edo beti bestearen gainera ipintzen du (Santrock, 2007; Kipp eta Shaffer, 2007); hori ere argi ikusi ahal izan dugu ikerketa honetan. Kasu horietan, gainera, neskak zintzoagoak direla eta mutilekiko begirune handiagoa dutela ikusten da, zintzoagoak baitira mutilen inguruan hitz egiterako orduan mutilak neskekin baino. Azken hau, gizartean dagoen hierarkizazioaren emaitza izan daiteke, izan ere, gizarteak sexu femeninoaren irudia gizonaren azpitik jartzen du, bestearekiko dependentzia azpimarratuz (Loscertales eta Núñez, 2008; Bilgune Feminista, 2011); eta gizonezkoen boterea eta emakumeen gutxiespena berezkoa dela ulertzen da (Urruzola, 2002).

Gizartea oinarrিতa dagoen eredu maskulino hegemoniko honetan, mutilei asko kostatzen zaie jarrera maitekorak dituztela onartzea, eta maila batean ezkutatu egiten dituzte itxurak gordetzeko beharra sentituko balute bezala. Ez dira gainontzekoen aurrean emozionalki biluzten. Santosek (2000) aditzera ematen duen moduan, gizonezkoek negarrik ez dutela egin behar, gogorak izan behar direla eta beste hainbat jarrera inposatzen zaizkie, sentsibilitatea eta gizatasuna nolabait eragotziz.

Nesken kasuan, beren buruarekiko segurtasun falta da askotan beraien iritziekin agerian geratzen dena. Askotan, gainontzekoek beraiengan ikusten duten ezaugarri positiboren bat kostatu egiten zaie ikustea. Hori, mutilei eta neskei ematen zaizkien espektatiba ezberdinen ondorioz datorren autoestima baxuaren eragina izan daiteke (Simón, 2010).

- **Zein iritzi dute jostailuen eta generoaren artean egiten den loturaz?**

Argi dago jostailuek genero marka dutela eta umeek barneratu egiten dutela, baita erreproduzitu ere. Ume gehienek, guztiek ez esateagatik, barre edo komentario txarrekin erreakzionatzen dute mutil bat panpinekin jolasten ikustean. Gizarteak transmititutako eredu honetan, errudunik handiena komunikabideak dira maila handi batean (Loscertales eta Núñez, 2008), baita familia ere estereotipoak erreproduzitzeagatik

(Kipp eta Shaffer). Hauek, neskak zaintzarekin loturiko jolasekin, eta mutilak akzioa ahalbidetzen dutenekin ibiltzera bultzatzen dituzte (Kipp, eta Shaffer, 2007). Hala, umeak ikusten dutenean oinarritzen dira, eta horren arabera jokatzeko egunerokoan.

Esanak esan, baina, ikasle gehienek, nor bere nahiak aurrera eramateko eta gustuko dituen gauzak egiteko eskubidea aldarrikatzen dute, pertsona bakoitza modu batekoa baita eta gustu eta zaletasun ezberdinak baititu. Horrela, bakoitza nahi duen jolasarekin ibil daitekeela defendatzen dute.

Eta beno, panpinekin ibiltzearen kasuan, gehienek adin kontua dela diote. Ikasleek haur txikiak panpinekin ibiltzea defendatzen dute baina zenbat eta nagusiago izan, hauekin ez ibiltzearen aldeko agertzen dira.

- **Lanbideak sexu jakinekin lotzen dituzte?**

Lanbide guztiak guztionak dira bai, baina gizartea urteetan zehar transmititzen joan den eredu eta egun ikusten dena erreproduzitzen, ikasle gehienek uste dute lanbide gehienak sexu bati edo besteari dagozkiola. Egungo gizartean, baita ikasleen errealitatean ere, jakina, emakumezkoak zaintzarekin eta atxikimenduarekin lotzen ditugu (Simon, 2010), horien artean, haur zaintzarekin. Lehen Hezkuntzako haurrei zaila egiten zaie oso gizonezko bat haur zaintzan imajinatzea.

Era berean, gizonezkoen eta etxetik kanpoko lanaren artean egiten dugun lotura nahiko handia da, etxera dirua ekartzeko zeregina duela esaten duen ideari lotuta (Kipp eta Shaffer, 2007). Hori dela eta, ikasleei emakumezko bat kotxeak konpontzen edo arrantzale gisa lanean imajinatzea zaila egiten zaie.

Galdera guzti horiekin une oro lanaren oinarrian izan dugun galdera nagusiari erantzuten ahalegindu gara, eta emaitzak aztertu ondoren, umeek gutxi gorabehera gizarteak igorritako genero rol eta estereotipoak zenbateraino dituzten barneratuta ondorioztatu ahal izan dugu.

Umeek gizarteak transmititutako genero rol eta estereotipoak barneratzen eta erreproduzitzen dituztela argi eta garbi ikusten da, mutilen kasuan, batez ere; eta beraiek dira, gehienbat, maskulinitatearen eredu diren rola hertsiki jarraitzen dituztenak.

Kasuan, neskak dira estereotipo hauetatik pixka bat urruntzen direnak, izatez maskulino gisa kalifikatzen diren rolak hartuz edota rol femeninoak alboratuz.

Esanak esan, baina, umeek, 7-8 urteen inguruan, gizabanakoak dituen gustuei eta zaletasunei garrantzia handiagoa ematen die gizarteak inposatzen dituen horiei baino; tolerantzia azaltzen dute, eta onarpen maila handia da. Santrock-ek (2007) eta Kipp eta Saffer-ek (2007) adin honetan estereotipoak molda daitezkeela irizten dute. Mutil edo neska izan, bakoitzak nahi duena egiteko askatasuna duela ulertzen eta defendatzen dute. Dena den, orokorrean, normalago egiten zaie neskek rol maskulinoak har dezaketela ulertzea mutilek rol femeninoak baino.

Haur eta Lehen Hezkuntzako etapak erabakigarriak dira gizakion bizitzetan, hauetan garatzen baitira inoiz ahazten ez diren gaitasun eta jarrerak. Honen harira, gizon eta emakumeen arteko berdintasunak egungo gizarteko lehentasunezko jomuga izaten jarraitzen duelarik, eskolak, aukera berdintasunaren aldeko ekarpenak egitea eta sexu-bereizkeria bermatzen duten eremuak eta estimulak atzematea, aurre hartzea eta desegitea izan beharko luke helburu nagusietako bat bezala.

Gizarteak ikasleei transmititzen dien maskulinitate eredu hegemoniko horren baitan, umeak pixkanaka-pixkanaka gure gizartetik desagerrarazi nahi ditugun aurreiritziak eta ideiak jasotzen ari dira; mutilak eta neskak desberdinak direla ikasten ari dira bai komunikabideen, bai familiaren eta bai eskolaren eraginaren ondorioz, eskolan bertan ere gizarteko eredia indartzen baita.

Guzti honek ondorioak ekarriko ditu umeek beraien burua ikusteko duten eran, eta baita mundua interpretatzeko eta ulertzeko moduan ere. Eta nola ez, beraien ideia, iritzi eta ekintza orotan eragina izango du.

Hau guztia dela eta, ezinbestekoa iruditzen zaigu egora hori aldatzeko zerbait egitea. Horrela, orain arte egin den lan guztiari behar adina garrantzia eman ez eta bere horretan gera ez dadin, hobekuntza estrategiak eta bide ezberdinak bilatu behar ditugu, eta zer modu hoberik eskolatik hastea baino, etorkizuneko gizartea beraien esku izango duten umeak hezkidetzan heziz. Horretarako, ikerketa honetan landu ditugun zehar-lerroak aintzat hartuz, interesgarria izango litzateke gehiago sakontzeko jarduerak ezberdinak egitea:

- Gizon zein emakumeak lanean ari diren lantegi ezberdinetara bisita
- Ipuin hezkidetzailen irakurketa
- Elkarrizketak eta debateak

Halaber, diagnosi mailako beste ikerketa batzuk burutzea ere interesgarria izan daiteke, maitasun erromantikoaren fenomenoaren, gizartean dauden familia eredu ezberdinen eta sexualitatearen eta generoaren arteko loturarekin zerikusia dutenak, besteak beste.

Azken finean, etorkizuneko gizartea osatzera bidean, eskolak ezin du berdintasunaren aldeko eta sexu bereizkeriaren aurkako balioak bermatzearen aurrean ezikusiarena egin. Gizabanako, familia, eskola, instituzio pribatu eta publiko, zein komunikabide, guztion esku dago gizarte parekidearen puzzlea osatzea.

7. Erreferentzia bibliografikoak

- Azpiroz, Ainhoa (2005). Hezkidetza detaile sutilen indarra. *Hik hasi*, 96, 8-17,
- Bilgune Feminista (2011). *Hezkidetza lau haizetara*, 2014-01-29an http://topatu.info/wp-content/uploads/2012/11/hezkidetza_lau_haizetara1.pdf-tik eskuratua
- Cortés, Graciela. (1997). Confiabilidad y validez en estudios cualitativos. *Educación y Ciencia, Revista de la Facultad de Educación de la Universidad Autónoma de Yucatán, México*, 1(1), 15.
- García Domínguez, Antonio (2009). *Los hombres, la igualdad y las nuevas masculinidades*, 2014-02-17an hartua, hemendik: <http://quimosavic.wordpress.com/2009/09/22/los-hombres-la-igualdad-y-las-nuevas-masculinidades-curso-en-linea-organizando-por-emakunde-gizonduz/>
- Loscertales, Felicidad eta Núñez, Trinidad (2008). *Los medios de comunicación con mirada de género*. Consejería para la Igualdad y Bienestar Social, Instituto Andaluz de la Mujer.
- Martínez Miguélez, Miguel (2006). Validez y confiabilidad en la metodología cualitativa. *Paradigma*, 27(2).
- Ramírez, Alberto. (2003). Metodología de la investigación científica. *Exacto Visual, Quito*, 2014-05-13an hartua, hemendik: <http://www.javeriana.edu.co/ear/ecologia/documents/ALBERTORAMIREZMETODOLOGIADELA INVESTIGACION CIENTIFICA.pdf>
- Salas García, Begoña (1997). *Ikastetxearen hezkidetza eredu egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde, 2014-03-11n hartua, hemendik: http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf
- Santos M. A. [koord.] (2000): *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*, Grao, Bartzelona.
- Santrock, John.W. (2007). *Desarrollo infantil*. McGraw-Hill Interamericana, Mexico.
- Shaffer, David R.; Kipp, Katherine (2007). *Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia*. Cengage Learning, México D.F.
- Simon Rodríguez, Ma. Elena (2010). *La igualdad también se aprende: cuestión de coeducación*. Narcea, Madrid.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana De Educación. Volumen I* (6), 49-78.
- Ugarte, Bea (2008). *Hezkidetza lantzeko klabe batzuk*. Euskal curriculum. Herritarren ekarpena, http://eu.wikibooks.org/wiki/Fitxategi:Hezkidetza_lantzeko_klabe_batzuk_-_EC.pdf-tik hartua 2014-04-02an
- Urruzola M. J. (2002 urtarrila). Emakumea hezkuntzan. Gehiengoa bai, baina zertan?. *Hik Hasi*, 64 (7-12).

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: TALDE FROGAK

a) Rol eta estereotipo femenino eta maskulinoekin identifikatzen

Fridaren bila

Amaia dut izena, baina nire lagunek “Maita” deitzen didate oso maitagarria naizelako. Oso pozik jartzen nau jendea alai ikusteak, eta beti arotzen naiz nire ingurukoei musuak eta besarkadak oparitzen. Eta sekretutxo bat esango dizuet; nik ere oso gogoko dut maitasuna jasotzea.

Ikaragarri gustatzen zait amatxok nire urtebetetze egunean oparitu zidan pelutxezko hartzarekin jolastea. Frida du izena eta gauza asko egiten ditugu elkarrekin: apaindu, makilatu, askaldu, mutilez hitz egin... Gainera, askotan, berdin jantzita ateratzen gara kalera.

Nire lagunik onena Aitor izena du. Oso jatorra da eta ez dakizue zein ausarta den! Hala ere, esan beharra daukat pixka bat narrasa dela, izan ere, futbolean jokatzeko duen bakoitzean goitik behera zikinduta amaitzen du. Ez dauka erremediorik!

Nik Frida bezala, Aitorrek toki guztietara eramaten du bere baloia.

Aitor eta biok parkean ezagutu genuen elkar, eta harrigarria badirudi ere, gertakizun berdinak egin zuen gu ezagutzea. Istorioa kontatuko dizuet...

Astelehena zen eta Frida eta biok, ilean bi begizta gorriekin eta kolore bereko soinekoarekin, poz-pozik atera ginen kalera paseotxo bat ematera.

Kalean behera gindoazela, txakur bat atera zitzaigun bide erdira. Zaunkaka hasi zen eta ez zen gelditzen. Sekulako ikara sartu zitzaidan gorputz osoan eta bi pausutara neukan jarleku batera igo nintzen. Bertan, zutik, geldi geldik nengoen, baina, halako batean, urduritasunarekin, Frida lurrera erori zitzaidan. Orduan, txakurrak, hartza ahoan hartu eta korrika bizian alde egin zuen.

Hori ikustean, negar batean hasi nintzen. Milaka malko bota nituen bata bestearen atzetik. Momentu horretan, herriko udaltzaina agertu zen eta gertaturikoa kontatu nion. Eskerrak pixkanaka ni lasaitzea lortu zuen eta herrian zehar nire pelutxearen bila lagundu zidan.

Buelta batzuk eman ostean, parkera iritsi ginen. Hantxe zegoen Aitor. Zorionez, panpina kendu zidan txakur madarikatu hura ere bertan zegoen. Eta ezetz, asmatu nor gehiago zegoen? Frida! Une horretan bertan Aitor Frida eskuetan zeukan.

Parketa iritsi bezain laster, Aitor nigana hurbildu zen eta pelutxea eman zidan. Kontatu zidanaren arabera, abenturaz beteriko istorio bat bizi izan zuen Frida lortzeko.

Astelehen arratsalde hartan Aitor parkean zebilen baloiarekin jolasean. Halako batean, txakur bat ikusi zuen ahoarekin zerbait astintzen eta berarengana hurbildu zen. Ahoan zeukana pelutxezko hartz bat zela konturatu zenean, hau kentzen saiatu zen, baina, txakurrak eraso egin zion. Zortez, Aitorrek ziztu bizian lortu zuen txakurrak egin nahi zion harramazka saihestea, baina baloia erori egin zitzaion.

Berehala, txakurrak, pelutxea parkeko zuhaitz batera jaurti zuen eta baloiarekin geratu zen. Aitor, orduan, azkar eta ausardia osoz, zuhaitzaren gainera igo zen pelutxearen bila.

Zuhaitzaren gainean zegoen bitartean, kasualitatez, txakurraren jabea agertu zen eta Aitorrek txakurra lotzeko esan zion. Gizonezko hark txakurra lotu ostean jauzi batekin zuhaitzetik jaitsi zen Aitor. Eta momentu horretan bertan agertu ginen Udaltzaina eta biok.

Aitorren istorioa entzun ostean, niri gertaturikoa kontatu nion. Bukatu nuenean, barrezka hasi ginen biok, eta eskerrak emateko, besarkada bat eman nion Aitorri.

Besarkada horrekin hasi zen gure laguntasuna. Harrezkero, astebururo geratzen gara elkarrekin jolasteko. Lehenbizi futbolekin aritzen gara eta gero Fridarekin barre pila bat egiten dugu. Gainera, ez da egunik, astelehen hartan gertatu zitzaiguna gogoratzen ez dugunik.

Zoriontasunaren garrantzia

“Saltoka, saltoka, nabil ni gustura, salto eta salto bat sartu arte...” Ezagutzen al duzue abesti hori? Nire gogokoena da. Ez naiz hau abesteaz aspertzen sokasaltoan aritzen naizen bakoitzean. Egia esan, ez dago ezer hobeagorik gogokoen dituzun bi gauzak batera egitea baino, eta nire kasuan, sokasaltoan ibiltzea eta abestea dira.

Arratsaldero joaten naiz herriko plazara nire lagunekin sokasaltoan eta beste hainbat kontutan aritzera. June, Teresa, Maialen eta Irune oso jatorrak eta dibertigarriak dira. Aita-ametan, pultserak egiten, txutxumutxuan edota dantzan aritzen gara. Gauza berdinak gustatzen zaizkigu eta itzel pasatzen dugu elkarrekin. Ai ene! Nire lagunak aipatu, eta neure burua ez dut aurkeztu ere egin. Hauxe da burua! Kepa dut izena eta 10urte ditut.

Egun luze bat eta gero, afalostean, hortzak garbitu, nire bihoz dun pijama jantzi eta ohera sartzen naiz. Behin ohean, pixkatxo bat irakurri, eta ostean, lotara joaten naiz, baina inoiz ez minutu batzuk sabaiko leihotik izarretara begira pentsatzen aritu gabe, oraintxe nagoen moduan. Goiko literan lo egiteak dituen abantailak!

Ez dut bakarrik lo egiten, konpainia daukat beheko literan. Orain momentuan badirudi munstro bat dagoela nire azpian, zurrungak egin eta egin baitabil, baina Irene baino ez da, nire arreba maitea.

Irene eta biok urte beteko aldea daukagu, eta oso desberdinak gara, ez zaizkigu gauza berdinak gustatzen. Ireneren denbora pasa gogokoena jostailuzko auto, motor eta kamioiekin ibiltzea da, eta tartetxo bat libre duen bakoitzean hortxe aritzen da: “bruuuuuum”, “niinoooo niinoooo”... Istorio paregabeak interpretatzen ditu jostailuekin, lasterketak egiten ditu... Sekulako imajinazioa dauka.

Ostiral gauetan, Irene auzokoarengana joaten da bideojokoetan aritzera. Gure auzokidea Markel eta bera oso ondo moldatzen dira, gustu berdinak dituzte eta banaezinak dira. Irenek eta Markelek, Formula1-eko motxila berbera eramaten dute eskolara, eta gainera, buruan beti bisera bat daramate, beraien jantzi gogokoena baita. Bi lagunak oso abenturazaleak dira eta zein baino zein lehiakorragoak, ez dakite galtzen.

Gauetan, irakurtzen ari naizen bitartean, Irenek, bere jostailuzko autoekin ni molestutzen aritzen da, ez nau bakean uzten, eta gero, noski, liskarra izaten dugu. Ia

egunero kontu berbera, zirt eta zart, dinbi eta danba... beti borrokan amaitzen dugu. Ikusi duela hilabete gutxi gorabehera zer gertatu zitzaigun...

Afaria bukatu bezain laster bainugelara joan nintzen. Lehendabizi hortzak garbitu nituen, ondoren aurpegian azala leuntzeko krema eman, eta gero nire bihozduen pijama zoragarria jantzi nuen. 10 minutuan ohean sartuta nengoen jada, "Tximeleta miragarria" liburua eskuan.

Ordu erdi pasatu zen eta Irene oraindik logelara etorri gabe zegoen, egongelan zebilen bere autoekin.

Halako batean, aita gauero bezala amets goxoak desiratzera eta muxu bat ematera etorri zen. Irene falta zela ikusi zuenean, ziztu bizian egongelara joan eta sekulako biraoak bota zizkion. Logelatik entzuteak bakarrik beldurra eman zidan niri, beraz, ez dut imajinatu ere egin nahi nola zegoen Irene.

Aitaren aurretik, muturtuta sartu zen logelara Irene eta ohera sartu zen zuzenean. Behin biok lotarako prest geundela, lehenbizi amatxok niri eman zidan muxua eta gero Ireneri. Muxua ez zen izan, baina, Irenek jaso zuen gauza bakarra, horrekin batera aitak pare bat hitz esan baitzizkion.

Ez dakit non daukazun burua! Ordu hauek eta zu oraindik jolasean? Eta gainera ziur ez duzula hortzik ere garbitu. Zure anaia Kepa bezain arduratsua izan bazina... Ea noiz uzten dituzun auto madarikatu horiek albo batera eta liburuak irakurtzen hasi! Ikasi zure anaiarengandik!

Irene isil isilik geratu zen eta aita bazihoan logelatik argiak itzali ostean. Atetik irtetera zihoan momentuan, lurrean botata zegoen nire sokasaltoarekin katigatu eta lurrera erori zen. Sekulako zaplaztekoa hartu zuen amak.

Momentuan bertan Ireneri oihuka hasi zen bere jostailuren batekin estropezu egin zuelakoan, baina argia piztu, eta nire sokasaltoa zela konturatu zen.

- *Falta zitzaidana! Orain sokatzar hau! – esan zidan aitak haserre. Zuri ere ez litzaizuke gaizki etorriko zure adineko mutilak bezala kromoekin aritzea eta tontokeriak albo batera uztea! Ai ene, ez dakit nik zuek biokin zer egin behar dudan!*

Hurrengo goizean, aitak, gu esnatzera etorri bezain laster, barkamena eskatu zigun. Esandako gauza guztiak berotasunaren eta haserrearen ondorioz esan zituen. Muxu eta



besarkada handia eman genion hirurok elkarri. Gainera, ez dakizue zer... oparitxoak ekarri zizkigun! Berak txikitan erabiltzen zituen eta gogokoen zituen goma-jolasa eta jostailuzko garabi bat. Nik goma-jolasa hartu nuen eta Irenek garabia. Eta jostailuak ematearekin batera honako hitzak esan zizkigun:

- *Ez dio axola zerrekin eta norekin aritzen zareten. Garrantzitsuena zuek gustura aritzea da, gustuko dituzuen gauzak egiten. Zuek zoriontsu bazarete, ni ere zoriontsu izango naiz.*

Harrezkero, Irene eta biok hobeto konpontzen gara. Gainera, aitarekin batera, hirurok, sokasaltoan, goma-jolasean, autoekin eta garabiarekin ibiltzen gara noizean behin. Oso ondo pasatzen dugu. Eta esan beharra daukat, benetan gustatzen zaiguna preziatzen ditugun pertsonekin egiteak ez daukala preziorik.

b) Gizarteak transmititzen dituen gaitasun, balio eta portaera-eredu estereotipatuen irudia umeengan

- a) Nolakoak gara neskak eta mutilak? Hormako mural batean neska baten eta mutil baten giza irudiak egongo dira irudikatuta. Bakoitzak sexu bakoitzaren gorputzaren barruan zein ezaugarri daukan edo nolakoa den uste duten ipini beharko dute.



b) Nolakoa naiz ni? Ezaugarrien kutxa. Ikasle bakoitzak bera nolakoa den definitzen duten ezaugarriak aukeratu beharko ditu.

ABENTURAZALEA	AFEKTIBOA	AHULA
AKTIBOA	ANBIZIO HANDIKOA, GUSTATZEN ZAIZKIDAN GAUZAK LORTZEKO AHALEGUNA EGITEN DUT	ARDURATSUA
ARGALA	ARGIA	AZKARRA
BOTERETSUA	ZALANTZATIA, INTSEGURITATEA DAUKAT ASKOTAN	INDARTSUA
SEGURUA, GAUZAK ZIURTASUNEZ EGITEN DITUT	DENA KONTROLATUTA IZATEA GUSTATZEN ZAIT	KUXKUXEROA
LEHIAKORRA	MAITEKORRA	NEGARTIA
OLDARKORRA, AGRESIBOA	PINPIRINA	SENTIBERA, SENSIBLEA
ULERKORRA	ATSEGINA, JATORRA	ZENTZUDUNA
PAZIENTEA, PAZIENTZIADUNA	BESTEEI ENTZUTEA ETA LAGUNTZEA GUSTATZEN ZAIT	URDURIA

c) Jostailuen eta jolasen generoa

Ikerrek 8 urte ditu eta panpinekin jolastea gustatzen zaio, baina jendeak esaten dio gaizki egiten duela.



(http://www.yummymummyclub.ca/sites/default/files/u720/doll%20with%20Ben_0.JPG –tik hartutako irudia)

d) Lanbideak: genero kontua?

a) Sailkatu ondorengo lanbideak dagokien kolorearekin

- Urdinez emakumeen lanak
- Berdez gizonezkoen lanak
- Gorritz emakumeen eta gizonen lanak

<p>MEDIKUA </p>	<p>ABOKATUA </p>	<p> MEKANIKOA</p>
<p>ASTRONAUTA </p>	<p> SUHILTZAILEA</p>	<p>MUSIKARIA </p>
<p> POLIZIA</p>	<p>SUKALDARIA </p>	<p> ARRANTZALEA</p>
<p>TELEBISTAKO AURKEZLEA </p>	<p>IRAKASLEA </p>	<p>HAUR ZAINZAILA </p>
<p>POSTARIA </p>	<p>DENTISTA </p>	<p> OKINA</p>

2. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK BIDERATZEKO GIDOIA

1) Rol eta estereotipo femenino eta maskulinoekin identifikatzen

- *Ipuinari jarraiki egiteko galderak:*
 - a) Ipuin osteko galderak
 - Zer izan da gehien gustatu zaizuena? Zergatik?
 - Nolakoa da Amaia? Eta Aitor?
 - Nolakoa da Kepa? Eta Irene?
 - Zein pertsonaiarekin identifikatuko zinateke?
 - Zer iruditu zaizue deigarriena?
 - b) Behatzekoak
 - Nola erreakzionatzen dute?
 - Barrerik egin al dute? Zergatik?

2) Gizarteak transmititzen dituen gaitasun, balio eta portaera-eredu estereotipatuen irudia umeengan

1. Galdera: zergatik egin duzue aukeraketa hori?	
2. Galdera: ikusten al duzue desberdintasunik hormako muralean jarritakoaren eta zuek hartutako ezaugarriaren artean?	
<i>Berdinak izatearen kasuan...</i>	<i>Desberdinak izatearen kasuan...</i>
Zergatik egin duzu aukeraketa hori? zarela esan duzu eta muralean (kontrakoa) jartzen du, neskak/mutilak direla esanez. Nola liteke?
Ezin al zaitezke izan? Zergatik?	Zein izan daiteke desberdinak izatearen arrazoa?
3. Galdera: beraz, neska bat izan daiteke? Eta mutil bat? Zergatik?	
4. Momentuan suertatutako beste galdera batzuk	

3) Jostailuen eta jolasen generoa

1. Galdera: Zergatik uste duzu jendeak esaten diola gaizki egiten ari dela?	
2. Galdera: Nahi izanez gero jolastu al dezake panpinekin?	
(Erantzun posibleak)	
<i>Nesken kontua da panpinekin ibiltzea</i>	<i>Nahi izanez gero ibili daiteke</i>
Orduan, badaude jostailu batzuk neskentzako direnak eta beste batzuk mutilentzako, ezta?	
Normalean zein jostailu erabiltzen ditugu ba?	
Mutil batek zergatik jolasten du Action Man bezalako panpinekin eta ez Barbie-ekin?	
3. Galdera: Hemendik aurrera zer egin beharko du?	
4. Galdera: Zer uste duzu egin beharko luketela bere gurasoek?	
(Erantzun posibleak)	
<i>Beste jostailu batzuk erosi</i>	<i>Panpinekin jolasten utzi</i>
Baina... panpinekin jolasten jarraitzen badu zigortu egin beharko luketela uste duzu? Zergatik?	
5. Zerbait txarra egiten ari al da? Zergatik?	
6. Momentuan suertatutako beste galdera batzuk	

4) Lanbideak: genero kontua?

- *Ipuinari jarraiki egiteko galderak:*
 - Zergatik sailkatu dituzu horrela?
 - Zure gurasoek zertan egiten dute lan?
 - Eta zuri, zer gustatuko litzaizuke izatea nagusitan?
 - Mutilak/neskak ezin al daitezke izan?
 - ...

3. ERANSKINA: IKASLEEK BERAIEIEN BURUAREKIKO DUTEN IRUDIA

EZAUGARRIA	Mutilak	Neskak	GUZTIRA
Abenturazalea	11	7	18
Aktiboa	11	5	16
Argala	7	3	10
Boteretsua	2	0	2
Segurua. Gauzak ziurtasunez egiten ditut.	3	2	5
Leihakorra	6	1	7
Oldarkorra. Agresiboa	1	1	2
Afektiboa	1	3	4
Anbizio handikoa. Gustatzen zaizkidan gauzak lortzeko ahalegina egiten dut	5	6	11
Argia	6	3	9
Zalantzatia. Intseguritatea daukat askotan	3	1	4
Dena kontrolatuta izatea gustatzen zait	4	2	6
Maitekorra	3	4	7
Pinpirina	0	0	0
Ahula	1	0	1
Arduratsua	4	6	10
Azkarra	10	2	12
Indartsua	9	5	14
Kuxkuxeroa	2	3	5
Negartia	0	0	0
Sentibera. Sensiblea	3	0	3
Ulerkorra	5	3	8
Atsegina. Jatorra	6	6	12
Zentzuduna	7	3	10
Pazientea. Pazientziaduna	7	5	12
Besteei entzutea eta laguntzea gustatzen zait	5	5	10
Urduria	6	3	9

	Gehien errepikatu diren ezaugarriak
	Gutxien hautatutako ezaugarriak

4. ERANSKINA: LANBIDEEN SAILKAPENA

LANBIDEA	MUTILENA			NESKENA			BIENA		
	M	N	G	M	N	G	M	N	G
Medikua	3	1	4	0	0	0	8	6	14
Abokatua	3	1	4	1	0	1	7	6	13
Mekanikoa	10	4	14	0	0	0	2	2	4
Astronauta	7	3	10	0	0	0	4	4	8
Suhiltzailea	5	3	8	0	0	0	6	4	10
Musikaria	2	1	3	0	1	1	9	6	15
Polizia	4	2	6	0	0	0	7	5	12
Sukaldaria	3	0	3	3	0	3	5	7	12
Arrantzalea	8	2	10	0	0	0	3	5	8
Telebistako aurkezlea	2	1	3	0	1	1	9	5	14
Irakaslea	1	0	1	4	0	4	6	7	13
Haur zaintzailea	0	0	0	8	5	13	3	2	5
Postaria	3	1	4	2	0	2	6	6	12
Dentista	1	0	1	3	1	4	7	6	13
Okina	3	0	3	3	1	4	5	6	11

Gehiengoak egin duten aukeraketa